



Usurbilgo Udala



TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO OTSAILAREN 11N
GOIZEKO 8:40EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezinetorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2014/01/28KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2014ko urtarrilaren 28ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- MUNALURRA KALEA 10 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ORDEZKARITZAN DIHARDUEN CARLOS MILLA AZCONA JAUNARI, MUNALURRA KALEA 10 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0286

MUNALURRA KALEA 10 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20309761) ordezkartzan diharduen Carlos Milla Azcona jaunak, Munalurra kalea 10 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du


Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkunek bi txosten eman ditu: bata, EE2013_04_016 txostena 2013ko abuztuaren 5ean; eta bestea, EE2014_04_06 txostena 2014ko urtarrilaren 5ean.

Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza onartu zuen behin betikoz (GAO, 23. zenbakia, 2014-02-05).

Bestalde, Alkateak 2014ko otsailaren 7an emandako 2014/0106 dekretuaren bidez, MUNALURRA KALEA 10 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI (IFK: H-20309761), Munalurra kalea 10 etxean igogailua ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 20,64 m²ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2014ko otsailaren 7an formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Usurbilgo Udala



Gauzak horrela, Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaren xedapenak kontutan izanik, igogailua ezartzeko beharrezko administrazio-emakida burutu dela jakinik, udal arkitektoaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MUNALURRA KALEA 10 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20309761) ordezkartizan diharduen Carlos Milla Azcona jaunari, Munalurra kalea 10 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Iñigo Lizundia arkitektoak (Arkilibe) 2011ko azaroan idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak beren txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- JABARI PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA. Igogailua eraiki ahal izateko eraikinaren azalera 20,64 m²tan haunditu behar da, horretarako dagokion administrazio-emakida formalizatu da.
- ERAIKIGARRITASUN HAUNDITZEA. Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzako 6. artikuluan —*Beste baldintza batzuk*— xedatutakoaren arabera: «1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste



Usurbilgo Udala

instalazioren bat jartzea, beharrezkoa den zerbait ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarrizko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalerak (teknikoki beharrezkoa denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goititzerik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.»

- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza bete beharko ditu.*
- Ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA. Ezinbestean bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretuak.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritza epe gehiengoa: urte 1.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - × Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - × Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.



Usurbilgo Udala

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- × Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- × Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
- × Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- × Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak igogailua funtzionamenduan jartzeko baimen ziurtagiria.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - × Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - × Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - × Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - × Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- 2013KO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZAREN 2. ZATIA ORDAINTZEAN HAINBAT TALDERI.

Ikusirik

2013eko otsailaren 6an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko hogei laneguneko epea emanez.

2013eko maiatzak 31ko Tokiko Gobernu Batzarrean diru-laguntzaren lehenengo zatia ordaintzeko erabakia hartu zen. Gainerako %25a, diru-laguntza justifikatu ondoren ordaindu behar zen.



Usurbilgo Udala

Orain, hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu dute:

Etumeta Aek euskaltegia

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Itzuli beharrekoa
7. Eskulangintza tailerra	96,00 €	72,00 €	EZ DA EGIN	-72,00
Itzulpena Guztira				-72,00 €

Zubieta Eskolako Guraso Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
34. Udako Txokoak	840,00 €	630,00 €	Gastuak: 9.670,65 € Sarrerak: 8.830,65 € Guztira gastuak: 840,00 €	210,00 €
35. Aste Kulturala	950,00	712,50 €	Gastuak: 1.259,09 € Sarrerak: 309,09 € Guztira gastuak: 950,00 €	237,50 €
Guztira				447,50 €

San Praixku Guraso Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
40. Yoga ikastaroa	360,00 €	270,00 €	Gastua: 963,84 € Sarrerak: 950,00 € Guztira gastua: 13,84 € 2. zatia 13,84-270,00	-256,16
41. Udako txokoak	900,00 €	675,00 €	Gastuak: 1.265,55 € Sarrerak: 700,00 € Guztira gastua: 565,55 2. zatia 565,55-675	-109,45
42. Euskararen Eguna	807,50 €	605,63 €	Gastuak: 839,00 € Soberakina 31,50 €	201,88
43. Hitzaldia	285,00 €	213,75 €	Gastuak: 210,00 € Soberakina: 31,50 € Guztira gastuak: 241,50 € 2. zatia 241,50- 213,75	27,75
44. Santo Tomas Eguna	285,00 €	213,75 €	Gastuak: 189,40 2. zatia 189,40-213,75	-24,35
Itzulpena Guztira				-160,33 €

Nafartarrak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
69. Telp ikastaroa	1.058,52 €	794,12 €	Gastuak: 1.022,68 € 68.-71. ekintzetako soberakina:36,14 Guztira gastua: 1.058,82 €	264,71
70. Xuberoako ikastolaren aldeko jaialdia	600,00 €	450,00 €	Gastuak: 500,00 € 71. ekintzako soberakina:17,69 € Guztira gastua 517,69 € 2. zatia 517,69-600	67,69



Usurbilgo Udala

71. Antzerki edo kontzertua	211,76 €	158,82 €	Gastuak: 240,00 € Soberakina: 28,24 €	52,94
Guztira				385,34 €

Ziortza gazte elkarteak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
25. Urteko saioak	1.440,00 €	1.080,00 €	Gastuak: 2.472,66 €	360,00
26. Kanpaldia	6.000,00 €	4.500,00 €	Gastuak: 14.056,45 € Sarrerak: 7.191,54 € Guztira gastuak: 6.864,91 €	1.500,00
27. Kabalgata 2014	2.185,00 €	1.638,75 €	Gastuak: 3.211,51 €	546,25
Guztira				2.406,25 €

Organoaren Lagunak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
49. Organo eta Tronpeta kontzertua	332,50 €	249,38 €	Gatuak: 310,00 € 51. ekintzako soberakina: 19,84 Guztira gastua: 329,84 € 2. zatia 329,84-249,38	80,46
50. Organo kontzertua	1.805,00 €	1.353,75 €	Gastuak: 1.599,00 € 2. zatia 1.599,00-1.353,75	245,25
51. Organo internazionalen bilkura	218,50 €	163,88 €	Gastuak: 238,34 € Soberakina 19,84 €	54,63
Guztira				380,34 €

Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
56. Guraso tailerren jarraipena	1.317,00 €	987,75 €	Gastuak: 2.440,00 € Soberan: 1.123,00 €	329,25
57. Haur eskolako gurasoek ikastaroak	78,00 €	58,50 €	Gastuak: 240,00 €	19,50
58. Famili tailerrak eskulanak	750,00 €	562,88 €	EZ DA EGIN	-562,88
59. Ikastolako aste kulturala	1.149,50 €	862,13 €	Gastuak 1.170,44 € Soberan: 20,94 €	287,37
60. Guraso eskola tailerrak	1.020,36 €	765,27 €	Gastuak: 1.615,00 € Soberan: 594,64 €	255,09
61. Teknologia berriak	703,00 €	527,25 €	Gastuak: 220,00 € 56. ekintzako soberakina: 483,00 € Guztira gastuak: 703,00 €	175,75
62. Helduak euskalduntzea	210,00 €	157,50 €	EZ DA EGIN	-157,50
63. Jostailuen truke merkatua	180,50 €	135,38 €	Gastuak: 40,00 € 56. ekintzako soberakina: 140,00 € Guztira gastuak: 180,50 €	45,12
Guztira				391,71 €

Antxomolantxa

Ekintzak	Izendatua	1.zatia	Justifikatutakoa	Bideratu edo
----------	-----------	---------	------------------	--------------



Usurbilgo Udala

		%75a		itzuli beharrekoa
36. Ludoteka txokoak	807,50 €	605,63 €	Gastuak: 1.018,52 € Sarrerak: 350,00 € Guztira gastuak: 668,52 € 2. zatia 668,52-605,63	62,89
37. Aste santuko, ekaina, iraila, eta Gabonetako txokoak	600,00 €	450,00 €	Gastuak: 880,00 € Sarrerak: 300,00 € Guztira gastuak: 580,00 € 2. zatia 580,00-450,00	130,00
38. Irteera kulturala	30,00 €	22,50 €	EZ DA EGIN	-22,50
39. Kultura ekintzak	1.805,00 €	1.353,75 €	Gastuak: 1.446,55 € 2. zatia 1.446,55-1.353,75	92,80
Guztira				263,19 €

Bota Punttuba

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
64. Santa Ageda Eskea	142,50 €	106,88 €	Gastuak: 150,00 € 2. zatia: 150,00-106,88	43,12
65. Bertso eskola	1.122,00 €	841,50 €	Gastuak: 392,00 € 2. zatia: 392,00-841,50	--449,50
66. Bertso afaria	760,00 €	570,00 €	EZ DA EGIN	-570,00
Itzulpena Guztira				-976,38 €

Bidean Agiñarron Herri Elkartea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
28. Erregeen kabalgata 2013	665,00 €	498,75 €	Gastuak: 863,50 € Soberakina 198,50 €	166,25
29. Eliza zarraren inaugurazioa	475,00 €	356,25 €	Gastuak: 377,59 € ZURIKETA AGIRI BATZUK EZ DIRA ONARTU 28. Ekintzaren soberakina: 97,41 € Guztira gastua: 475,00 €	118,75
30.Sen Kontzertua	1.425,00 €	1.068,75 €	Gatuak: 1.366,63 € Sarrerak: 630,00 € Guztira: 736,63 € 28. eta 31. Ekintzetako soberakina: 575,45€ Guztira gastua 1.312,08€ 2. Zatia 1.312,08€-1.068,75€	243,33
31. Antzerki saioa	570,00 €	427,50 €	Gastuak: 1.179,36€ Sarrerak: 135,00€ Guztira gastua: 1.044,36€ Soberakina: 474,36€	142,50
32. Poesio errezitaldia	190,00 €	142,50 €	Gastuak:70 € 2. zatia 70-142,50	-72,50
Guztira				598,33 €

Akerra Gaztetxea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia	Justifikatutakoa	Bideratu edo
----------	-----------	---------	------------------	--------------



Usurbilgo Udala

		%75a		itzuli beharrekoa
84. 8 kontzertu	1.520,00 €	1.140,00 €	Gastuak: 1.700 € ZURIKETA AGIRI BATZUK EZ DIRA ONARTU	380,00
85. Pala txapelketa	171,00 €	128,25 €	EZ DA EGIN	-128,25
86. Mendi irteera	10,00 €	7,50 €	AGIRIAK EZ DIRA ONARTU	-7,50
87. Hitzaldiak	47,50 €	35,63 €	Gastuak: 50,00	11,88
88. Urteurren jaialdia	237,50 €	178,13 €	AGIRIAK EZ DIRA ONARTU	-178,13
Guztira				78,00 €

Einean guraso elkarteak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
15. Laboreak ikastaroa	72,00 €	54,00 €	Gastuak: 19,76 € 19. Ekintzako Soberakina: 52,24 € Guztira gastua: 72,00 €	18,00
16. Yoga	72,00 €	54,00 €	Gastuak 19,76 € 19. Ekintzako Soberakina: 52,24 € Guztira gastua: 72,00 €	18,00
17. Biodantza	72,00 €	54,00 €	Gastuak 19,76 € 19. Ekintzako Soberakina: 52,24 € Guztira gastua: 72,00 €	18,00
18. Kartoizko altzairuak	72,00 €	54,00 €	EZ DA EGIN	-54,00
19. Pintura	720,00 €	540,00 €	Gastuak: 1.258,71 € Soberakina: 538,71 €	180,00
20. Eskulanak	720,00 €	540,00 €	Gastuak: 1.006,48 € Soberakina: 286,48 €	180,00
21. Idazketa kreatiboa	72,00 €	54,00 €	Gastuak 19,76 € 19. Ekintzako Soberakina: 52,24 € Guztira gastua: 72,00 €	18,00
22. Sukaldaritza	72,00 €	54,00 €	EZ DA EGIN	-54,00
23. Sabel dantza/Hip-Hop	72,00 €	54,00 €	Gastuak 19,76 € 19. Ekintzako Soberakina: 52,24 € Guztira gastua: 72,00 €	18,00
24. Zumba	72,00 €	54,00 €	Gastuak 19,76 € 19. Ekintzako Soberakina: 52,24 € Guztira gastua: 72,00 €	18,00
Guztira				360,00 €

Kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2013ean kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2013/02/06).

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren kitapena egitea:



Usurbilgo Udala

Eskatzailea	Ekintza	Itzulketak
Etumeta Aek euskaltegia	7	-72,00 €
San Praixku Guraso Elkartea	40-41-42-43-44	-160,33 €
Bota Punttuba	64-65-66	-976,38 €

Diru-itzulketak jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXA: 2095 5069 07 1060024832
EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

Bigarrena: Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordainketa
Zubieta Eskolako guraso elkartea	34-35	447,50 €
Nafartarrak	69-70-71	385,34 €
Ziortza gazte elkartea	25-26-27	2.406,25 €
Organoaren lagunak	49-50-51	380,34 €
Hitz-Aho guraso elkartea	56-57-58-59-60-61-62-63	391,71 €
Antxomolantxa	36-37-38-39	263,19 €
Bidean Agiñarron herri elkartea	28-29-30-31-32	598,33 €
Akerra Gaztetxea	84-85-86-87-88	78,00 €
Einean	15-16-17-18-19-20-21-22-23-24	360,00 €

Hirugarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.4000.481.451.10.03.2013 (A/ 342-2013)

Laugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Bosgarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio, ordainketa egiteko orria erantsiz.

4.- 2013KO GIZARTE ZERBITZUETAKO DIRU-LAGUNTZAREN 2. ZATIA ORDAINTZEA HAINBAT TALDERI.

Ikusirik

2013ko otsailaren 8an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2013. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeit hamar eguneko epea emanez, hau 2013ko martxoaren 4an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, guztira 14 diru-laguntza eskaera jaso ziren.



Usurbilgo Udala

Hori horrela, 2013ko apirilaren 18an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2013. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2013ko apirilaren 30eko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko maiatzaren 31ean egindako bilkuran, 2013. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzak onartu eta diru-laguntzaren lehen ordainketa (diru-laguntzaren erdia) egitea eta gainerako % 50a, emandako diru-laguntza justifikatu ondoren ordaintzea onartu zuen.

Laburtuz,

TALDEAREN IZENA	IZENDATUA	1. ORDAINKETA %50	BIDERATU BEHARREKOA	OHARRAK
ACABE	846,12 €	423,06 €	423,06 €	--
ADEMG	410,24 €	205,12 €	205,12 €	--
ALCER GIPIZKOA	743,56 €	371,78 €	371,78 €	--
BEGISARE	461,52 €	230,76 €	230,76 €	--
HARRERA ELKARTEA	923,04 €	461,52 €	461,52 €	--

Kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2013an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2013-02-08)

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei gizarte zerbitzuen arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Taldearen izena	Ordainketa
ACABE	423,06 €
ADEMG	205,12 €



Usurbilgo Udala



ALCER GIPUZKOA	371,78 €
BEGISARE	230,76 €
HARRERA ELKARTEA	461,52 €

Bigarrena : Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: Diru-laguntza irekiak:
Elkarteen asmoak: 1.8000.481.313.90.03.2013

Hirugarrena: Interesatuei akordioaren berri emango zaie.

Laugarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:50ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.